

Getxo >MEETING<



Otsailak 3

Zure helburu profesionalak 2022an ekintza-plan bihurtzeko sei ariketa

Arkatza eta boligrafoa hartu eta idazteari ekin, perspektiba hartzeko eta errazagoa izan dadin helburu horiek gauzatzea.

Hona hemen galderak:

1. Zein hiru helburu lortu nahi dituzu 2022an? Materialak izan daitezke, edo zure negozioaren irismenari lotuta egon daitezke, helburu komertzialak izan daitezke...
2. Zertarako lortu nahi duzu? Zer lortuko duzu horrela? Era horretan, zure sakoneko helburuak identifikatuko dituzu, horiek baitira gidatuko zaituztena motibaziorik ez duzun unetan.
3. Zeintzuk dira helburu horiek lortzeko antzematen dituzun oztopo nagusiak? Idatzi. Oztopo bat baino gehiago egon daiteke helburu bakoitzerako. Gogoratu lehenengo pertsonan idatzi behar dituzula, ez du balio pilota kanpora botatzeak.
4. Proposatutakoa lortzeko modu sinpleagorik dagoen pentsatu. Era berean, "zertarako" hori (2. galdera) lortzeko modu errazagoak dauden hausnartu. Lasterbiderik al dago?
5. Helburua lortzeko hartu beharreko urrats zehatzei buruz hausnartu. Bide bat zehaztu, non urrats bakoitza zehatza eta egingarria izango baita.
6. Osatu esaldia: "Zorionez, ... daukat". Zeretik abiatu ez zaitezen dituzun esperientziak, gaitasunak, ezagutzak eta lorpenak azaldu. Zerrenda luzea egin, ez zaitetz erdibidean geratu. Indarberrituko zaitu.



Zer iruditu zaizu? Motibazio gehiagorekin aurrera egiten lagunduko zaitu?

Helburuak idazteak ez du horiek lortzea bermatzen, baina burua argitzen laguntzen du. (Eta hori ezinbestekoa da helburuak lortzeko).